



Prentsa oharra

Nota de prensa



Prensa oharra

Nota de prensa



Betiko Euskal Jaiak, berrikuntzekin eta publiko guztiarentzako programazioarekin

Besteak beste, Sagardo Eguna, Elkanoren Eguna, Poesia Orduak eta Gaztelu Eguna nabarmentzen dira

Euskal Jaiak 2022 beren distira guztiarekin itzuliko dira, ezagutzen genituen bezala ospatzera iritsi ez diren bi urteren ondoren. Hala, publiko guztiei irekitako jarduerak biltzen dituen programa bat aurkeztuko dute. Besteak beste, Sagardo Eguna, Elkanoren Eguna, *1813-2022 Ate Zaharberriak* ikuskizuna, Poesia Orduak edo Gaztelu Eguna izango dira gozagarri.

Asteazkenean, abuztuak 31, hasiko dira Kontxako Banderetarako emakumezkoen eta gizonezkoen sailkapenekin, eta igandean, irailak 11, amaituko dira, Kontxako Baneren banaketekin.

Horrela, aurtengo programazioa 11 egunetan zehar garatuko da, eta, guztira, 61 jarduera egingo dira mota guztietako ikusleentzat.

Sagardo Eguna irailaren 3an, larunbata, ospatuko da Konstituzio Plazan, goizeko 11:00etatik 13:45era. Hasiera Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko 38 sagardogilek ekoiztutako sagardoaren dastaketak emango dio. Sagarra prentsatzeko artisau-prozesua ere zuzenean ikusi ahal izango da, eta 2022ko uztako lehen muztioa dastatzeko aukera egongo da. Berritasun gisa, sagardoa kopan gozatuko da aurten.

Halaber, Euskal Sagardoaren jatorria diren bertako sagarren erakusketa egongo da ikusgai, eta injerto motei eta horien teknikei buruzko tailerrak eskainiko dira.

Amaitzeko, topa eta hainbat omenaldi. Besteak beste, eskertza eta aitortza berezia Otsua-Enea Sagardotegiko Ximon Etxeberriari, omenaldia egin aurretik zendu zena, eta Petritegi Sagardotegiari, urteetan zehar beraiek izan baitira Konstituzio Plazan pintxoak eskaini dituztenak.

Elkanoren Eguna

Juan Sebastian Elkanoren irudia ere gogora ekarri nahi dute Euskal Jaiek, munduari egindako biraren 500. urteurrenean. Horrela, **irailaren 6an, asteartea** eta egun osoan zehar, hainbat jarduera izango dira gozagarri.

Goizean, 11:30etik 13:30era, eta arratsaldean, 15:30etik 18:30era, Eko Txokoa irekiko da, parke ludiko, hezitzaile eta didaktikoaren kontzeptu berria, adin guztietarako egokia, baliabide naturalen zentzuzko erabilera sustatzeko. Horrez gain, itsas gaietako

Prensa oharra

Nota de prensa



puzgarriak izango ditu txikienentzat, eta Elkano irudikatzen duen buruhandi bat ere bai, haurrek argazkiak atera ditzaten.

19:45ean eta 21:00etan Easo Abesbatzak Aitona Julian III itsasontzitik abestuko du, kaitik joko duen piano baten laguntzarekin. Halaber, Kresala Dantza Taldeak *Amoria & Dolore Elkano Lehen Mundu Bira* ikuskizuna eskainiko du Aquarium pareko arrapalan.

Poesía Orduak eta Gaztelu Eguna

Aurten ere Poesía Orduak ekimena itzuliko da. Hala, irailaren 7an, asteazkena, eta 19:00etan, Victoria Eugenia Antzokian, *Alaska* ikuskizuna izango da, Castillo Suarez idazlearen eta Juantxo Zeberio musikariaren eskutik. Ostegunean, hilaren 8an, Joseba Sarrionandiak eta Ines Osinaga soinu-jole eta abeslariak hartuko dute lekukoa, *Olatu arteko txalupe arraroa* ikuskizunarekin.

Nobedade gisa, aurten **1813-2022 Ate Zaharberriak oroimenezko ikuskizunaz** gozatzeko aukera egongo da irailaren 9an, ostirala, 20:30ean Irun Plazan. Apustu eszeniko honek gure hiriaren historia zeharkatuko du, 1180an sortu zenetik gaur egunera arte, 1813an jasan zuen suntsipen eta arpilatze esperientzia izugarritik igaroz.

Halaber, irailaren 10ean, larunbata, Gaztelu Eguna ospatuko da, hiria berreraikitze eta 1813an Zubietako Aktak sinatzeko erabakia gogorarazteko. Ekitaldiak 11:30ean hasiko dira, Trinitate plazatik Urgulleko gaztelura irteera batekin, eta 20:30ean amaituko da Konstituzio Plazan Zubietako Aktak irakurritz.

Gastronomia, kirola eta kultura

Ekitaldi hauetaz gain, mota guztietako ikusleei zuzendutako beste jarduerak asko ere izango dira gozagarri: gastronomiarekin lotutako jarduerak, hala nola Alde Zaharreko Jai Batzordeak antolatutako Marmitako Lehiaketa edo Sarriegi Plazako Sardina Jatea. Kirol-jarduerak, besteak beste, badiaren igerian zeharkaldia, pilota txapelketak eta estropadak; eta, azkenik, euskarazko kulturarekin lotutako jarduerak, hala nola, Donostia Bertsotan.

Donostian, 2022ko abuztuaren 30ean